



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

24. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (7. or.).
- Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (13. or.).
- Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakina (18. or.).
- Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakinak (18. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua “Nafarroako Enplegu Plan” bat egin dezan premiatzen duena. Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak baztertua (19. or.).
- Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsia (19. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan. Osoko Bilkurak baztertua (20. or.).
- Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gorteen adierazten dute beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari buruzko azterlan bat egitea. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko apirilaren 2an eginiko Osoko Bilkuran, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Legea

ZIOEN ADIERAZPENA

Espainiako Konstituzioak 36. artikuluan ezarritzen du lege bidez arautuko direla Lanbide Elkargoen araubide juridikoen ezaugarri bereziak eta lanbide titulatuaren jarduna. Gainera, Elkargoen barne egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dutela adierazten du.

Konstituzio Epaitegiak adierazi duen bezala, Lanbide Elkargoak korporazio sektorialak dira, kideen interes pribatuak defendatzearen sortzen direnak, baina interes publikoko xedeak ere badituzte eta, horrexegatik, legearen aldetik, pertsona juridiko-publiko gisa edo zuzenbide publikoko korporazio gisa eratzen dira, horien jatorri, antolamendu eta eginkizunak ez baitaude bakarrik bazkideen esku, baizik eta lehen-lehenik legegileen beraien derrigorrezko erabakien menpe. Izan ere, legegile horiek Elkargoei esleitzen dizkiete lurraldeko administrazioei dagozkien eginkizunak edo biak lankidetzan aritzeko aukera ematen diete, administrazio eskumenen delegazioen bitartez. Horren ondorioz, korporazio horiek aipatu lurralde administrazioen menpe edo tutoretzapean gelditzen dira, horiek baitira Elkargoek dituzten eginkizun edo eskumenen titularrak. Tutoretza lan horrek, Nafarroaren kasuan Foru Komunitateko Administrazioaren gain dagoenak, arau bat behar du, esparrua eta hedadura zehaztu eta Nafarroa-

ko Lanbide Elkargoei aplikatu beharreko araubide juridikoa finkatzeko.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.26 artikulua adierazten du Nafarroak erabateko eskumena duela Lanbide Elkargoen eta lanbide titulatuaren jardunen arloetan, lege orokorre jarraikiz. Hortaz, Nafarroan jarduten duten Lanbide Elkargoen araubide juridikoa Estatuko legedia orokorrak arautuko du, honakoek hain zuzen: Lanbide Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea, Espainiako Konstituzioa aldarrikatu ondoren, abenduaren 26ko 74/1978 Legeak aldatua izan zena, ekainaren 7ko 5/1996 Errege Dekretulegea, apirilaren 14ko 7/1997 Legea eta Foru Lege hau berau, Estatuko oinarritzko legedia garrantzuz, Nafarroako Lanbide Elkargoen araubidearen ezaugarriak finkatzen dituena.

Foru Lege honek egitura erraza du. Araugin-tzako teknika dela eta, honakoak finkatu nahi izan ditu: Nafarroako Foru Komunitateko Elkargoen antolamenduan izanen diren berezitasunak, Lanbide Elkargoen helburu eta eginkizunak, horien eta Nafarroako Administrazio Publikoen arteko elkarlana, Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluen jarduna, Elkargo eta Kontseiluen araubide juridikoa eta Erregistro baten sorrera, publikotasunaren ondorioetarako.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldea, bakarrik nahiz beste lurralde batzuekin batera, duten Lanbide Elkargoak Foru Lege honetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira.

2. artikulua. Izaera juridikoa.

Lanbide Elkargoak zuzenbide publikoko korporazioak dira; berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko gaitasun osoa daukate.

3. artikulua. Helburu eta eginkizunak.

1. Nafarroako Lanbide Elkargoen helburu berariazkoak dira kasuan kasuko lanbidea eta kolegiatuen interes profesionalak defendatu eta ordezkatzea, gizartearen interes orokorrekin bat etorritik, eta lanbidearen jarduna antolatzea, bere eragin eremuaren barruan eta ezarritako legermarkoa errespetatuz, Nafarroako Administrazio Publikoek, beren zerbitzuko langileen eginkizunak direla eta, duten eskumena galarazi gabe. Gainera, honako helburu hauek izanen dituzte:

a) Kolegiatuen lan profesionala kalitatezkoa izan dadin begiratzea.

b) Kolegiatuen jarduna lanbidearen arau deontologikoen arabera eta zerbitzatzen duten gizarteak eskatutakoaren arabera dela bermatzea.

c) Kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten interes orokorrak lor daitezen zaintzea.

d) Nafarroako Administrazio Publikoek laguntzea beren eginkizunak aurrera eramanez ditzaten, Foru Lege honetan zehaztuta dagoen bezala.

2. Helburu horiek betetzeko, Lanbide Elkargoen eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Profesionalekin harremanetan sartzen diren hiritarren eskubideak eta interesak errespetatzen direla bermatzea, lanbidearen etika errespetatuz eta diziplina ahalmena erabiliz.

b) Organo aholku-emailetan eta langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzea, Nafarroako Administrazio Publikoek eskatzen dietenetan.

c) Kolegiatuendako interesgarri diren jarduketak eta zerbitzu komunak antolatzea, lanbidearen ingurukoak, laguntzarakoak zein kulturalak, profesionalen arteko esperientzien eta jakingaien trukeari bidea emanez, Elkargoko kide diren ala ez begiratu gabe, eta profesionalen prestakuntza jarraia sustatzea.

d) Profesionalen arteko intrusismoa eta konpetentzia desleiala ebitatzea, antolamendu juridikoa zehazturikoaz baliatuz.

e) Kolegiatuen artean edo kolegiatu eta hirugarrenen artean sortzen diren arazo profesionalen parte hartzea, bitarteko edo arbitraje lana eginez, inplikaturik dauden alderdiek hala eskatzen dutenean.

f) Lansari, ordain eta zerbitzu-sari profesionalak kobratzea, kolegiatuek beraiek eskatuta, Elkargo bakoitzaren estatutuaren zehazten diren baldintzetan, eta txostena egitea, lanbide-sariei

buruzko aferak eztabaidatzen diren epaiketa prozesuetarako eta administrazio prozeduretarako.

g) Aurrekontuak onestea eta kolegiatuen ekarpenak arautu eta finkatzea.

h) Elkargoen lan profesionalak sinatu, baldin eta kasuan kasuko Elkargoaren estatutuek edo dagokion legediak horrela ezartzen badu. Sinadurak ziurtatu egingen du lanaren egilea, eta horren titulazioa, gaitasuna eta habilitazioa, eta baita lanaren eduki formala ere. Sinadurak ez ditu barne hartuko ordainsariak ezta kontratuko baldintzak ere, horiek alderdiek ezarriko baitituzte askatasunez.

i) Foru Komunitateko proiektu arau-emaileak informatu, hain zuzen ere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten ondoko gaiei buruz: betebeharrak, eremuak, ordainsariak, gobernu organoetako kideen bateraezintasunak, prestakuntza edo espezializazio ikastaroak, eta diplomak.

j) Legearen babesean dagozkion gainerako eginkizunak, interes profesionalak defendatzeko eta Elkargoaren helburuak betetzeko xedea dutenak.

4. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoekiko lankidetzak.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Lanbide Elkargoen esku utzi ahalko ditu lanbide horren inguruko administrazio eginkizunak.

Eginkizunak delegatzeko Foru Dekretu horretan zehaztu beharko dira horien hedadura, edukia, iraupena eta baldintzak, Nafarroako Gobernuak bere esku izanen duen kontrolbidea eta, horrelakorik bada, transferitzen diren baliabide pertsonal, material eta ekonomikoak.

Beti ere, Nafarroako Gobernuak izaera orokorreko jarraibideak eman ahalko ditu eta edozein momentutan eskatu ahalko du Elkargoaren kudeaketari buruzko informazioa, baita ordezkariak bidali eta bidezko errekerimenduak egin ere. Jarraibideak ez badira betetzen, informazioa ukatu edo errekerimenduei kasu egiten ez bazaie, Gobernu delegazio-emaileak delegazioa atzera eramanez dezake edo, bestela, delegaturiko esku-mena berak erabili.

Delegazioa eragingarria izateko, kasuan kasuko Elkargoaren onespena beharko da.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek lankidetzak hitzarmenak sina ditzakete Lanbide Elkargo-

kin eta Nafarroako Elkargoen Kontseiluekin, interes komuneke ekintzak aurrera eramateko.

5. artikulua. Administrazio harremanak.

1. Nafarroako Lanbide Elkargoak eta Lanbide Elkargoen Nafarroako Kontseiluak, Foru Lege honetan bilduta dauden alderdi instituzional eta korporatiboei dagozkienetan, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Barne Departamentuarekin jarriko dira harremanetan.

2. Lanbidearen inguruko gaiei dagokienez, Elkargoak eta Kontseiluak kasuan kasuko gaiarekin erlazionatuta dagoen eskumena duen departamentua izanen du bitarteko.

6. artikulua. Elkargoen autonomia.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Lanbide Elkargoen arteko harremanak autonomian, partaidetzan, eraginkortasunean, lankidetzan eta elkarren arteko errespetuan oinarrituko dira.

Nafarroako Lanbide Elkargoek modu autonomoan onetsiko dituzte beren estatutuak, eta horretarako izanen dituzten muga bakarrak legeek ezartzen dituztenak izanen dira. Horien barne egitura eta funtzionamendua demokratikoak izanen dira.

II. KAPITULUA

Lanbide Elkargoen sortzea, bategitea, bereganatzea, izena aldatzea eta desegitea

7. artikulua. Lurralde eremua.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoa hartzen ez duen Elkargorik ezin izanen da eratu.

2. Ez da zilegi izanen Nafarroako Lanbide Elkargo bat eratzea, baldin eta, Nafarroaz gain, beste lurralde eremu bat hartzen duen titulazio ofizial bereko Elkargoa baldin badago.

8. artikulua. Eraketa.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen barruko Lanbide Elkargoen sorrera Foru Lege bidez egingen da.

2. Lanbide Elkargo baten sorrera onesteko Foru Legea eman aitzin, kidego horretako titulazio ofiziala izan eta Nafarroan helbideraturik dauden profesional gehienek eskatu beharko dute. Lanbide Elkargoa eskatzeko baldintzak eta sortzeko prozedura erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoak ez du eraginik izanen Nafarroarako Lanbide Elkargoa eratzten baldin bada lurralde eremu handia-

goa duen beste batetik banatuz. Horretarako, Foru Dekretua beharko da, aplikagarri den arautegiari jarraikiz.

9. artikulua. Nortasun juridikoa.

Lanbide Elkargoek nortasun juridikoa izanen dute horien eraketari buruzko legeak indarra hartzen duen unetik aurrera. Jarduteko gaitasuna haien gobernu-organoak eratzten diren unetik aurrera izanen dute.

10. artikulua. Izena.

1.- Elkargoen izenek "Elkargo" espresioa jaso beharko dute, hala nola beren kideen titulazioa edo lanbidea eta beren lurralde-eremua.

2.- Lanbide Elkargo bati ezin izanen zaio eman aurretik zegoen beste Elkargo baten izen berbera edo antzekorik, edo Elkargokideen titulazioarekin bat ez datorrenik, edo bertan sarturik dauden profesionalei buruzko errakuntzarik eragin dezakeenik.

3.- Izen-aldaketa hurrengo artikuluan xedaturikoari jarraituz izapidatu beharko da.

11. artikulua. Bategitea, bereganatzea, izena aldatzea eta desegitea.

1. Lanbide Elkargoak bategin, bereganatu, izena aldatu edo desegiteko Foru Dekretua onetsi beharko da, Elkargoen ekinbidez, estatutuetan adierazitakoari jarraikiz eta ukituriko Elkargo guztiei entzunaldia eman ondoren, desegitea lege bidez erabaki baldin bada ere.

2. Kidego bat desegiteko erabakiak berekin ekarriko ditu hortik datozen ondorio juridikoak eta bertan ezarri beharko da ondarea, eskubide eta beharkizunak likidatzeko prozedura eta leudekeen diru-soberakinen helburua, Elkargoen estatutuetan eta aplikagarri den arautegian xedatutakoari jarraikiz.

III. KAPITULUA

Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluak

12. artikulua. Kontseiluen eraketa.

1. Titulazio ofizial bereko Lanbide Elkargoek, jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen zati batean dutenek, kasuan kasuko Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseilua eratu ahalko dute.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera sortzen diren Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluak Foru Lege honetan eta berau garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira eta, aurreikusita ez dagoen orotan,

Lanbide Elkargoen Kontseilu nagusiei buruzko Estatuko lege orokorrak hartuko dira kontuan.

13. artikulua. Eratzeko prozedura.

Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluak Foru Lege bidez eratuko dira eta lanbide horretako Nafarroako Elkargo guztien adostasun erabakia beharko da. Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluek nortasun juridiko propioa izanen dute, haiek sortzen dituen legea indarrean sartzen denetik, eta aritzeko erabateko gaitasuna, gobernu organoak eratzen direnetik aurrera.

14. artikulua. Izaera juridikoa.

Lanbide Elkargoak zuzenbide publikoko Korporazioak dira, berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko gaitasun osoa daukate.

15. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluek honako eginkizun hauek izan ahalko dituzte:

- a) Kide diren Elkargoen jarduketa koordinatzea.
- b) Lanbidearen ordezkaria izatea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean eta kasuan kasuko Kontseilu Nagusietan, horiek arautzeko arauak horretarako baimena ematen badiete.
- c) Elkargoen artean sortzen diren arazoak ebaztea, ondoren jar litekeen administrazioarekiko errekurtsua galarazi gabe.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkargoen gobernu organoetako kideei dagokienez, diziplina arloko ahalmenak erabiltzea.
- f) Kontseiluaren aurrekontua onestea eta Elkargoek Kontseiluaren gastuetan izan behar duten partaidetza proportzionala finkatzea.
- g) Nafarroako Gobernuak esleitzen dizkien eginkizunak aurrera eramatea eta, halaber, lankidetzaren hitzarmenetan zehazten direnak.
- h) Foru Lege honetako 2. artikuluko 2. zenbakiko b), c) eta i) letren bidez, Nafarroako Lanbide Elkargoei esleitu zaizkien eginkizunak.
- i) Profesionalendako interesgarri diren ekintzak burutzea.
- j) Indarra duen legeriak esleitzen dizkien gainerako eginkizunak.

IV. KAPITULUA

Elkargoean bazkidetzea eta araubide juridikoa

16. artikulua. Kideak onartzea.

1. Lanbide Elkargoek kasuan kasuko titulazio ofiziala eta lanbide horretan aritzeko legeek eskatzen dituzten baldintzak betetzen dituzten profesionalak onartuko dituzte, dagokien eskabidea aurkeztuz gero.

2. Nafarroako Foru Komunitatean Elkargoa duen lanbide batean aritzeko, ezinbestekoa izanen da Komunitate honetako Lanbide Elkargo bateko kide izatea, salbu eta beste lurralde bateko lanbide bereko Elkargo batekoa dela egiaztatzen baldin badu.

3. Lanbide Elkargo bateko kide izateak ez du eraginik izanen sindikatu edo elkarteetan parte hartzeko eskubideetan.

4. Lanbide Elkargo batean, jardunean ari diren eta ari ez diren kideak dauden eta ez dauden kideak baldin badaude, denek eskubide eta betebeharrak berdinak izanen dituzte gobernu organoetan eta ordezkaritza organoetan duten partaidetzari dagokionean.

17. artikulua. Errekurtsoak.

1. Administrazio zuzenbidearen menpe dauden Lanbide Elkargoetako organoek emandako egintzen aurka errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko jurisdikzioan, errekurtsu korporatibo bidea amaiturik. Gainerako egintzak eskumena duen jurisdikzioan errekurritu ahalko dira zuzenean.

2. Administrazioak emandako ahalmen eta eskumenak erabiliz, Lanbide Elkargoetako organoek emandako egintza eta erabaki administratiboak aurka, errekurtsu arrunta jarri ahalko da Nafarroako Gobernuan, administrazioarekiko bidari ekin aurretik, administrazio prozedurari buruz indarra duen legeriak ezarritakoarekin bat etorritik.

18. artikulua. Ondareen gaineko erantzukizuna.

Lanbide Elkargoek, dagozkien eskumenak erabiliz, hartzen dituzten egintza eta erabakien ondorioz kaltea hartzen duten hirugarrenen ondareen gaineko erantzukizuna Elkargoei beraiei dagokie, Nafarroako Gobernuak delegaturiko ahalmenak erabiliz aritzen direnean izan ezik, horrelakoetan Gobernuak izanen baita erantzulea.

V. KAPITULUA Lanbide Elkargoen erregistroa eta Elkargoen Kontseiluak

19. artikulua. Eraketa.

1. Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Nafarroako Elkargoen Kontseiluen Erregistroa eratu da, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari atxikia, non izena eman ahalko baitute Nafarroako Foru Komunitatearen mugak gainditu gabe jardurtzen duten Lanbide Elkargoen eta Elkargoen Kontseiluek.

2. Erregistro hori publikoa izanen da eta publikotasunaren ondorioetarako eratu da, soilik. Erregistroaren egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

20. artikulua. Edukia.

Lanbide Elkargoen edo Elkargoen Kontseiluen idazpenetan honakoa ezarri beharko da:

a) Jarduketa eremua Nafarroan duten Elkargo eta Kontseiluen izena eta helbidea.

b) Elkargo eta Kontseiluen estatutuak eta horien aldaketak.

c) Horien organoen barne araudiak.

d) Elkargoen eta Kontseiluen eratu, bategite, bereganatu, desagite edo izena aldatzearen inguruko datuak.

e) Nafarroako Elkargo eta Kontseiluek kanpoko beste batzuekin legez sinatzen dituzten hitzarmen eta erabakiak.

f) Elkargo eta Kontseiluetako organoen aldiari buruzko osaketa.

21. artikulua. Ez-onarpenak.

Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Elkargoen Kontseiluen Erregistroan zenbait datu sartzerik ez onartzea zilegi izan liteke, legezketasunaren ize-nean soilik eta aski arrazoiak emanez.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Foru Lege honek indarra hartzen duen egunean, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen mugak gainditu gabe, dela Nafarroa osoan dela zati batean, jarduten duten Lanbide Elkargoen errekonoizten dira.

Bigarrena. Nafarroako Lanbide Elkargoen Estatuko legeriak onartzen dien eskuhartzea iza-

nen dute kasuan kasuko lanbidearen Estatu mailako Kontseilu Nagusietan.

Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Lanbide Elkargoen Kontseiluek beste autonomi erkidegoetan dauden lanbide bereko Elkargo-Kontseiluekin izanen dituzten harremanak interesaturik dauden entitateen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.

Hirugarrena. Nafarroako Foru Komunitatea baino lurralde-eremu zabalagoak diren Lanbide Elkargoen Nafarroako ordezkariak diren Lanbide Elkargoen profesional gehienek banaketa sustatu ahal izanen dute, Elkargo independenteak eratzeko. Beharrezkoa izanen da banaketa Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu Kontseiluak dekretu bidez onestea eta alde zuzenetik Elkargoen Kontseiluak txostena egitea.

Laugarrena. Foru Lege honetan xedatutakoa Nafarroako Notarioen Elkargori aplikatuko zaio, berriazko legediak ezarritako berezitasunak ez diren gai guztietan, honako hauei dagokienez: fede-emaile eginkizunak, instrumentu publikoen antolamendua eta notario-jarduera publikoa.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Foru Lege honen bidez arautu diren Lanbide Elkargoen erregistro arloko beharkizunak bete beharko dituzte eta, beharrezkoa bada, Estatutuak Foru Legean ezarritakoari egokitu, indarra hartu eta urte bateko epearen barruan.

Bigarrena. Foru Komunitateko Administrazioak Foru Lege honetatik datozen beharkizunak bete daitezten begiratu du. Beharkizun horiek bete ezean, legez bidezko diren neurri eta egintzak hartuko dira.

Hirugarrena. Foru Lege honek indarra hartu aurretik, Lanbide Elkargoen egintzen aurka jarritako errekurtsoak izapidatuko dira jarri zirenean indarra zuen arautegiari jarraituz,

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau erregelamenduz garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu da. Proiektu hori 1998ko otsailaren 16ko 13 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOAREKIKO EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoarekiko emendakina.

Erabaki proposamena: itzul bedi Foru Lege proiektua Gobernura.

Zioak: 1.- Nekazariak eta abeltzainak ahaztu egin dira Foru Lege proiektu honetan.

Elkargo baten oinarria, edozein elkargorena bere partaideak dira. Lege proiektu honetan aipatu egiten dira, esate baterako 6. artikuluko 4-g) idazatian edo 20. artikuluko 1. idazatian. Aipatu bai, baina beren sarrera edo irteera, beren eskubide eta betebeharrak zein diren ez da zehazten. Eta okerragoa dena 22. artikuluan bateraezintasunak aipatzen dira baina beste baldintzak eta esku-bideak inon ezarri gabe.

2.- Bereizi egin behar dira Nekazaritza Ganbararen izatea bera edo bere kudeaketa eta bertako hauteskudeak. Foru Lege proiektu honen egileak badirudi ez duela hauteskundeetan besterik pentsatu.

3.- Nekazaritza Ganbarak elkarte gutiek bezala Batzarre orokorra egiteko ahalbideak behar ditu eta batzorde iraunkor bat ere. Foru Lege proiektu honetan ematen den itxura eta egitura guztiz presidentzialistak izateaz gainera, oso antidemokratikoak eta eginkortasunik gabeak bilaka litezke.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

1. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari ordezkatzeko emendakina.

Erabaki proposamena:

3. artikulua. Izaera Juridikoa.- Nafarroako nekazaritza Ganbarak nortasun juridiko osoa du eta legeek eta bere zereginen ematen dioten izaera.

Bere egitura eta jokabideak oinarri demokrati-koen arabera izan behar dira eta bere baliabideak kudeatzeko askatasun osoa izan behar du.

Zioak: Foru Lege proiektu honetan Nekazaritza Ganbarari eman nahi zaion izaera mistoa guztiz arriskutsua izateaz gain, antijuridikoa da. Adminis-tralgoa ezin da "zabaldu" bere eremuetatik at.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

2. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko emendakina.

Erabaki proposamena: artikulua honek dioena bertan behar utzi behar da.

Zioak: Nekazaritza Ganbarak legedi osoa erabili behar du eginkizun eta zeregin bakoitzean bere arlokoa erabiliz.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

3. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko emendakina.

Erabaki proposamena: 5. artikulua dioena bertan behera utzi behar da.

Zioak: Nekazaritza Ganbakak behar duen askatasuna eta nortasunak ezin dira Gobernuak sail baten menpean eta tutoretzapean murgildu.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

4. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua ordezkatzeko emendakina.

Erabaki proposamena:

6 artikulua. Barne Arauak. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak onartuko ditu lehenik eta ondoren Nafarroako Gobernuari aurkeztu ontzat hartuak izan daitezten.

Zioak: Nekazaritza Ganbakak behar duen askatasuna eta nortasunak eskatzen bera izatea bere Barne Araudia erabakitzen duena ezin dira Gobernuak sail baten menpean eta tutoretzapean murgildu.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

5. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko c) letrako testua aldatzeko emendakina.

Honako testu hau proposatzen da:

7. Artikulua. Eginkizunak.

c) Administrazio publikoen erakunde publiko edo organo kolegiatuetan hitzarekin bai baina botorik gabe parte hartzea, haien eraketan horrela aurreikusita badago.

Zioak: Hauteskundeak egin ondoren horien emaitzaren arabera den eta Nekazaritza Erakundeak soilik dagokien ordezkatzeko-eginkizuna Nafarroako Nekazaritza Ganbarak bereganatzea eragotzi nahi da.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

6. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 1. idazatiaren testua kentzeko emendakina.

Honako testu hau kentzea proposatzen da:

8. Artikulua. Mugak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak bere eskumeneko jardunean, ez die mugarik jarriko, ez askatasun sindikalari, ez enpresari-elkarteak egiteko eskubideari.

Zioak: 7. artikuluan aitortzen zaizkion eginkizunen arabera, Nafarroako Nekazaritza Ganbarak ez du eskumenik ez askatasun sindikala ez enpresari-elkarteak egiteko eskubidea mugatzeko; gainera, askatasun eta eskubide horiek Lege Proiektu honen gainetik dagoen lerruna duen indarreko legediak bermatzen ditu.

8. artikuluko 2. idazatian Nekazaritza Ganbararen eginkizunei ezarritako mugek bermatu egiten dute Ganbararen eskumenak sindikatu eta lanbide-erakundeei dagozkien eginkizunetan ez gauzatzea.

7. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

8. artikuluko 1. eta 2. puntuak aldatzeko emendakina. Honela idatzita geratuko da:

8. Artikulua. Mugak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ganbarak, bere eskumenak gauzatzean, askatasun sindikala eta enpresari-elkarteak egiteko eskubidea sustatuko ditu.

Beraz, ez dira Nafarroako Nekazaritza Ganbararen berezko eginkizunak (gainontzekoa berdin amaieraraino, eta hirugarren puntua bigarren bihurtu).

Zioak: Adierazitakoaren zentzuarekin ados egonik, hobe da idazkerari izaera positiboa ematea eta askatasun sindikalaren aldeko borondatea adieraztea.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

8. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua ordezkatzeko emendakina.

Erabaki proposamena:

9. artikulua, Nafarroako Nekazaritza Ganbararen kudeaketarako organoak hiru dira: Batzarre Orokorra, Batzorde Eragilea eta Lehendakaria.

Zioak: Nekazaritza Ganbarak behar duen egiturak demokratikoa izan behar du.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

9. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua ordezkatzeko emendakina.

Erabaki proposamena:

10. artikulua. Nekazaritza Ganbarako kideak.

Nekazari Ganbarako kideak nekazari eta abeltzainak dira.

Nekazari edo abeltzaina da lege honi dagokionez lanbide hori lan bakarra edo garrantzitsuena duena. Ulertuko da nekazaritzako lanbidea inorentzat garrantzitsuena dela dirulaguntzak, laguntzak eta beste edozein diru-iturritik at nekazaritzatik hartutako dirua beste inondik jasoa baino haundiagoa denean errenta aitopenean, eta gainera Nekazaritzako Gizarte Segurantzian ezarririk dagoenean.

Nafarroako nekazarien zerrenda eginen du lehenik Nafarroako Gobernuak aipatu ereduaren bitartez eta gero Ganbararen sorrerarako eta hauteskuntetarako deituak izanen dira

Zioak: Nekazaritza Ganbarako kideak zein diren, zer eskubide duten eta nola antolatu eta jokatu duten erabakitzea da lege honek behar lukeen xede nagusia.

10. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 1. idazatiaren testua aldatzeko emendakina

Honako testu hau proposatzen da:

10. Artikulua. Osoko Bilkura.

1. Osoko Bilkura Ganbararen organo gorena da. Hogeita hiru kide izanen ditu, sufragio ireki, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratu beharrekoak, lau urterako, ordezkaritza proportzionaleko irizpideen arabera hautatuak. Kide guztiak hauteskunde prozesu berean hautatuko dira, Nafarroa osoa hartuko duen hauteskunde barruti bakarrean.

Zioak: Nafarroako Nekazaritza Ganbarako organo gorena osatzen duten kideen kopurua gehitzea. Lege Proiektuak ezartzen dituen hamazazpien ordezkari hogeita hiru proposatzen dira; honek ahalbidetu egingen du eskualdeek eta zonek Ganbaran ordezkaritza handiagoa izatea, hauteskunde-prozesua Komunitate osorako hauteskunde-barruti bakarrean egin arren.

11. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 2. idazatik "j" letra aldatzeko emendakina.

Honako testu hau proposatzen da:

10. Artikulua. Osoko Bilkura.

2. Osoko Bilkurari dagokio:

j) Bere ordezkariak hautatzea dagozkion organo edo erakundeetan, horietan parte har dezan aurreikusten denean.

Zioak: Nafarroako Nekazaritza Ganbara Nafarroako Desjabetza Epaitegietan eta Desjabetzako Epaitegi Probintzian ordezkaria egotearen aipamena kendu nahi da, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeak beranduago aurkezturiko emendakinei jarraituz.

12. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

10. artikuluko 4. puntua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

10. artikuluan, 4. puntuan, "6 hilabetetik behin" esan ordez "3 hilabetetik behin" esan beharko da (gainontzekoa berdin).

Zioak: Foru Lege Proiektuak aurreikusten duen Ganbararen izaera presidentzialista kontuan izanik, egoki dirudi gutxienez hiru hilabetetik behin Osoko Bilkura arrunta egiteak, are gehiago 17 pertsonaz osaturiko Osoko Bilkura izanik.

13. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

10. artikuluko 4. puntua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

4.- Osoko Bilkura sei hilabetetik behin bilduko da, gutxienez, bilera arrunta egiteko. Bilera bereziak horretarako beharra dagoen bakoitzean egin ahalko dira, lehendakariaren erabakiz edo kideen heren batek eskatuz gero.

Zioak: partehartzea sustatzea.

**11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****14. EMENDAKINA****«EZKER ABERTZALEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulutik 31. artikuluraino eta Xedapen Gehigarri, Iragakor, Derogatzailer eta Azkeneko bakoitza kentzeko emendakina.

Erabaki proposamena: Aipatutako artikuluhorietako bakoitza eta xedapen bakoitza bertan behera eta indargabeturik gelditu bedi.

Zioak: Nekazaritza Ganbara nekazariak sortu behar dute eta ondoren deitu behar dira hauteskundeak.

15. EMENDAKINA**«MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

11. artikuluar beste puntu bat, 1 bis zenbakikoa, gehitzeko emendakina. Honela dio:

11. artikulua, 1 bis puntua: "Osoko Bilkurak, bere kideen gehiengo absolutuaz, Lehendakaria agintaldiko edozein unetan ordeztzea erabaki ahal izanen du, horretarako aparteko eta arrazoituriko deialdia eginez.

Zioak: Zentsura-mozioa Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Legean bertan arautu behar da; gai hori, 11. artikuluko 3. puntuak esaten duenaren kontra, ez da Ganbararen estatutuen bidez zehaztu behar.

**32. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****16. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

32. artikulua; "ehuneko hamabost, gutxienez" esan beharrean "ehuneko hamar" esan beharko du (gainontzekoa berdin).

Zioak: Gure Komunitatearen eremuan lanbide-erakunde adierazgarriena izateko, %10eko portzentaiara iristea aski jotzea.

17. EMENDAKINA**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

32. Artikulua. Erakunde adierazgarrienak.

Administrazio publikoetan edo, aurreikusita dagoen kasuetan, beste entitate eta erakunde juridikoetan erakundeen ordezkaritza zehaztearen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde adierazgarrienak izanen dira Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideak aukeratzeko hauteskundeetan baliozko botoen ehuneko hamar lortzen dutenak.

Zioak: Erakundeak hobeto ordezkaturik egoitea.

18. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

32. artikulua testua aldatzeko emendakina

Honela idaztea proposatzen da:

32. Artikulua. Osoko Bilkura.

Administrazio publikoetan edo, aurreikusita dagoen kasuetan, beste entitate eta erakunde juridikoetan erakunde ordezkaritza zehaztearen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde adierazgarrienak izanen dira Nafarroako Nekazaritza Ganbarako kideak aukeratzeko hauteskundeetan baliozko botoen ehuneko hamar, gutxienez, lortzen dutenak.

Zioak: Baliozko botoen gutxieneko portzentaia %10ekoa izan dadila nahi da, Foru Lege proiektuan aipatzen den %15ekoaren ordeztuz, Nafarroako Nekazaritza Ganbararako hauteskundeen bitartez hautatutako ordezkaritza anitzagoa izan dadin.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****19. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Lehenengo Xedapen Gehigarriari beste idazti bat gehitzea, 3 zenbakia izanen duena; hauxe da haren testua:

Nekazaritzako Toki Ganbarek ematen dituzten zerbitzu guztiak (Gizarte Segurantzako Nekazaritza Araubide Bereziaren kudeaketa eta izapidaketa barne) mantentzea ziurtagarria duen Nekazaritza Departamentuko unitate baten sorkuntza bermatuko da.

Zioak: Zerbitzuak mantentzea, nekazariari kalterik ez eragiteko.

20. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren Xedapen Gehigarria ordeztzeko emendakina:

Honako testu honekin ordeztzea:

1- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Batzorde Likidatzaile bat eratuko du; bertan, Nekazaritzako Lanbide Erakunde adierazgarrienak egonen dira ordezkaturik, eta izanen duen helburu bakarra hauxe da: Lege honetako Bigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz iraungiko diren Nekazaritza Ganbaren ondarea zehaztea.

2- Lege hau aplikatzearen ondorioz iraungiriko Nekazaritza Ganbarenak diren edozein izaeratako ondasun, eskubide eta betebeharrak dagokienez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak nekazaritza-interesekoak diren helburu eta zerbitzuetarako erabiltzen direla bermatuz egiten du ondasun eta bitartekoen esleipena.

3.- Bigarren idaztiak aipatzen duen ondasun eta bitartekoak esleitzeko prozesuan, lanbide-erakunde adierazgarrienei entzun beharko zaie.

Zioak: Nekazaritza Ganbaren ondasunak nekazaritza-interes orokorreko helburu eta zerbitzuetarako erabili behar dira, ondasunaren jabe zen iraungiriko ganbararen eremuan. Gainera, Nekazaritzako Toki Ganbaren ondasunak likidatzeko eta esleitzeko prozesu hori Nekazaritzako Lanbide Erakunde adierazgarrienen partehartzearekin burutu behar da.

21. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Bosgarren Xedapen Gehigarria gehitzeko emendakina

Honako testu hau proposatzen da:

Xedapen Gehigarriak

Bosgarrena. Transferituak izatean bitarteko funtzionarioak izan eta Foru Lege honek indarra hartu bitartean modu jarraian izaera horrekin iraun duten transferitutako funtzionarioek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario publiko izatea lortu ahal izanen dute, behin bakarrik deituko den txanda mugatuko oposizio-lehiaketa gainditu ondoren. Oposizio-lehiaketa horretan berdintasun, meritu eta ahalmen printzipioak bermatuko dira.

Langile horiek Foru Komunitateko Administrazioari emandako egiazko zerbitzuak balioetsiko dira oposizio-lehiaketan.

Zioak: Transferituriko funtzionarioentzat Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege Aurreproiektuak aurreikusten zituen baldintzak ez okerragotzea bilatzen da.

22. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Seigarren Xedapen Gehigarria gehitzeko emendakina

Honako testu hau proposatzen da:

Xedapen Gehigarriak

Seigarrena. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 10. Xedapen Gehigarriko 2. idazatikoa c) letra honela idatzirik geldituko da:

c) Goi-mailako tituludun bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatua eta Nafarroako Gobernuak izendatua.

Zioak: Desjabetza Epaitegietan Ganbara Ofizialen ordezkari Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat egotea bilatzen da, ordezkari hori aproposagoa baita aipaturiko Epaitegien helburuetarako.

XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**23. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko emendakina.

Honako testu hau proposatzen da:

Xedapen iragankorrak

Bigarrena. Nafarroako Nekazaritza Ganbararako lehenengo hauteskundeetarako deialdia Foru Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, gehienez ere, egingen du Nafarroako Gobernuak, eta 1998ko abenduaren 31 baino lehenago egingen dira.

Zioak: Hauteskundeak egiteko epe-muga bat jarri nahi da, 1998an, betiere nekazaritza eta abeltzaintzaren egoerak hautesleen partehartzerik handiena ahalbidetzen duen garaian, egin daitezten.

24. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen iragankorra aldatzeko emendakina

Honako testu hau proposatzen da:

Xedapen iragankorrak

Laugarrena. Landa Errentamenduen Arbitraje Batzordeetako kideen proposamena eta izendapena Landa Errentamenduei buruzko abenduaren 31ko 83/1980 Legean xedatutakoari jarraikiz egingen dira, Nafarroako Nekazaritza Ganbararen gobernu-organoak eratzen direnean.

Zioak: Nafarroako Nekazaritza Ganbara Nafarroako Desjabetza Epaitegietan eta Desjabetzako Epaitegi Probintzian ordezkaria egoteari buruzko aipamena kendu nahi da, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeak beranduago aurkezturiko emendakinekin bat etorri.

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela agindu da. Proiektu hori 1998ko otsailaren 16ko 13 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOAREKIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Osoarekiko emendakina, Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzekoa.

Zioak: Nafarroak, duen jarrera kontserbazionista, kontrapasa baimentzen zuen Gobernuaren Foru Dekretu bati erantzuna eman zion 1992ko urtarrilean, oposizioak aurkezturiko Foru Lege Proposamen batekin, eta, beranduago, orain aldatu nahi den 2/93 Foru Legea onetsiz.

EAJ eta CiUren presioek ariketa zaila egitera behartu dute Alderdi Popularra; horrela, Europako Batasunak gai honetan duen aurkako jarrera gainditu nahi du azken horrek, "fardela" Autonomi Erkidegoei pasaz, horiek har dezaten erabakia.

1997ko urrian jadanik jakin ahal izan zen Europako Batzordeak ez zuela onartzen Kongresuko Ingurugiro Batzordeak eginiko aldaketa (22 aldeko boto PP-CiU-EAJ, 18 aurka), zeina 4/89 Legean sarturiko aldaketa argitaratzearen zain baitzegoen, jardun ahal izateko.

Europako Batasuneko Ingurugiro Komisarioak berak urriaren 21ean kontrapasako ehiza baimentzen zuen aldaketa argitaratzearekin batera Espainiaren aurka arau-hausteko espedientea irekitzeko erabakiaren berri eman zuen. Salaketa hori Nafarroari ere zuzenduko zitzaion kontrapasa baimentzeko unean bertan.

"Gorosti" Natur Zientzien Elkarteak 1997ko apirilean eta ekainean eginiko azterlan batzuetatik ezberrik gabe ondorioztatzen denez, kontrapasako ehiza baimentzea ez da gomendagarria. "Ardu-ragai dugun populazioa jasaten ari den ehizaren presioa halakoa da non arriskuan jartzen baitu populazioaren beraren biziraupena; hori dela-eta, desegoki deritzogu presio hori areagotzeari. Kontrapasako ehizari dagokionez, presio hori bereziki larria da, negua jasan ondoren bizirik iraun ahal izan duten eta, beraz, ugalketarako gaitasun handia eta itzultzeko hegaldirako eta ondorengo ugalketarako behar adina elikadura-erreserba duten aleak suntsitzen baititu".

74/409/E.E.E. Zuzentarauak jasotako egitatea.

2. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Osoarekiko emendakina, Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua ez dago behar bezala justifikatuta; adierazten duenez, Estatuko araudia aldatzeak berekin dakar nahitaez Foru Legea eduki berrietara egokitzea, baina ez du ezerein irizpide tekniko edo zientifikoren aipamenik egiten.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektuak ez du inolako daturik agertzen, hazkuntza-edo habiagintza-tokietara itzultzeko igarobidean dauden hegazti migratzaileak harrapatzearen gaineko legezko debeku orokorrei beste salbuespen bat egitearen beharra frogatzen duenik.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektuak ez ditu aipatzen gaur egun pagausoaren gaineko ehiza-presioa areagotzeko gure Komunitatean dauden ohiz kanpoko baldintzak.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektuak ez ditu aipatzen kontrapasako ehiza baimentzeak konpontzen dituen arazoak; hain zuzen ere, horien eraginez Lege-aldaketa bat igorri da.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektuak ez du bermatzen Administrazioak beharrezko

diren giza- eta gauza-bitartekoak edukiko dituenik hertsiki kontrolaturiko baldintzetan ohiz kanpoko baimena eman ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektuak ez du kontrol-sistemen kostua balioesten, ez eta horiek abiaraztearen aurrekontuaren jatorria adierazten ere.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektuak ez du bermatzen basa-faunako espezieen kontserbazioa, ez eta beraiek bizi diren eta beraien ziklo biologikoa osoki garatzeko beharrezko dituzten habitatena ere.

Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua Hegaztiei buruzko Europako Komunitateko Zuzentarauaren aurka doa, ez baitu bermatzen basa-hegaztien kontserbazioari buruzko Europako Kontseiluko 79/409/EEE Zuzentarauko 9. artikuluan aurreikusitako baldintzei egokituko zaienik. Zuzentarau horrek aipaturiko hegaztien babes, kudeaketa eta kontrola arautzen ditu, eta horiek ustiatzeko arauak ere ezartzen ditu.

Laburbilduz, Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua, irizpide tekniko eta zientifiko serioetatik proposatua ez izateaz eta ezarritako nazioarteko jarraibideei ez egokitzeaz gain, jarrera populista eta konparaziozko batekin idatzia dago, eta horrek, ingurugiroaren ikuspegitik, teknikoki eta juridikoki justifikatua ez dagoen atzerapausoa ekartzen du, hiritarren interes orokorrekarekin bat ez datorrena.

Hori guztia dela-eta, Biltzarreko Osoko Bilkurari honako erabaki hau har dezala proposatzen diogu:

“Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.5 artikuluan xedaturikoari jarraituz, Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege Proiektua Gobernuari itzultzea erabaki da”.

3. EMENDAKINA

«EZKER ABERTZALEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzeko osoarekiko emendakina.

Zioak: Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak helburu nagusi hau duela adierazten du: Foru Komunitateko mendi, zelai,

baso eta ibaietan egoera basatian bizi diren animalien aberastasuna eta haien habitatak, azken horiek espezieen bizia babestu ahal izateko derrigorrezko toki gisa hartuz, arautu eta babestea, bi xede zehatzekin: basa-fauna behar bezala babestea eta gizakiak zentzuz erabil dezakeen faunaren ehiza-ustiapena antolatzea, Basa Faunaren berriazko Erregistro baten eta Mehatxaturiko Espezieen Katalogo baten bitartez.

Aipaturiko Foru Legea aldatzeko proposamenak, nahiz eta bereziki hazkuntza- edo habiagintza-tokietara itzultzeko igarobidean dauden hegazti migratzaile batzuk harrapatzeko baimenari buruzkoa izan, bidea irekitzen dio Nafarroako Gobernuari beste baimen batzuk emateko, dagoen eta derrigorrezkoa den Parlamentuaren beraren arazko baimenik gabe.

Bestalde, “erabat kontrolaturiko egoeretan eta ohiko metodo bereizgarrien bidez, ehiza espezieen ale batzuk zuhurki harrapatu, eduki edo edonola ere ustiatzea” ahalbidetzeak, hau da, e) idaztarian eranstea proposatzen den testuak, esan nahi du bestelako hegazti babestu eta katalogaturikoak kaltetuak izanen direla, arauaren helburua kontrollean eta kopuruan zorrotzak eta zuhurrak izatea baldin bada ere.

4. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege Proiektua Gobernuari itzultzeko osoarekiko emendakina.

Zioen azalpena: Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege Proiektu honek Nafarroan kontrapasako ehiza baimentzea du xede.

Kontrapasako ehiza hori Hegaztiei buruzko Europako Batasunaren 79/409 Zuzentarauaren aurkakoa da. Zuzentarau horrek modu orokorrean debekatzen du ehiza-mota hori, eta baimentzen du soilik ehizatu beharreko espeziea laboreetarako mehatxu edo izurri bihurtzen denean, salbuespen gisa. Jakina, egoera hori ez da Nafarroan gertatzen ez pagausoarekin, ez baimen bidez kontrapasan ehizatua izan daitekeen ezein espezierekin ere.

IU-EBn pentsatzen dugu Lege hori onetsi egiten baldin bada Hegaztiei buruzko Europako

Zuzentarauaren aurka joanen dela, eta ez dela egonen justifikatuta ez biologiaren ikuspegitik (kontrapasako ehizak udazkeneko migrazioaldian ehizaldi luzea jasan duten animaliak ukitzen ditu: horien populazioa gutxieneko biologikoan aurkitzen da eta animalia horiek ugalketa hastear daude; hori dela-eta, ehizatzen baldin badituzte, haiekin batera beren ondorengoak ere suntsitzen dituzte) ez etikaren ikuspegitik ere (beste animaliei zuzeneko tiroak egiten zaizkie, nahita zein identifikazio okerrak direla-eta; horien ondorioz, hainbat hegazti eta bestelako animalia hilak edo zaurituak gertatzen dira, nahiz eta hutsegiteen ondorioz eraso egin zaien animalia horietako batzuk desagertzeaz dauden espezieetakoak izan.

Hori dela-eta, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra"ko Parlamentari Taldeak hauxe proposatzen du:

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege Proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

1. artikuluari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Zioak: 2/93 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritako debekua ezin da unean uneko Gobernuaren iritzia menpe utzi, are gutxiago hartu nahi diren erabakiek –hau da, kontrapasako ehiza baimentzea Europako Batasunak ezarritako irizpideen aurka– ondorio larriak izan ditzaketenean.

2. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua testua kentzeko emendakina.

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua, irizpide tekniko eta zientifiko serioetan oinarrituz proposatua ez izateaz eta ezarritako nazioarteko jarraibideei ez egokitzeaz gain, jarrera

populista eta konparaziozko batekin idatzia dago, eta horrek, ingurugiroaren ikuspegitik, teknikoki eta juridikoki justifikatua ez dagoen atzerapausoa ekartzen du, hiritarren interes orokorrarekin bat ez datorrena.

3. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko e) letrako testua aldatzeko emendakina.

Honako testu hau proposatzen da:

e) Erabat kontrolaturiko egoeretan eta ohiko metodo bereizgarrien bidez, ehiza espezieen ale batzuk zuhurki harrapatu, eduki edo edonola ere ustiatzea ahalbidetzeko, espezieen iraupena bermatzeko behar diren mugak muga.

Beti ere, salbuespen hori praktikan jarri ahal izateko, beharrezkoa izanen da nazio- eta nazioarte-mailan aitorturiko ospea duen zientzia-erakunde batek buruturiko azterketa tekniko bat, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskaturikoa. Azterketa horrek artikuluko honetako aurreko leerroaldean adieraziriko baldintzak benetan betetzen direla ziurtatu beharko du, eta azterketa horri buruz Ingurugiro Kontseiluak txostena eman beharko du.

Zioak: Irizpide tekniko eta zientifiko serioetan oinarritzen ez diren aparteko egoerak baimentzea saihestu nahi da.

4. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko e) letrako testua aldatzeko emendakina.

“Ehiza espezieen ale batzuk” espresioa “pagauso”rekin ordeztea proposatzen da.

Zioak: Foru Legean Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aurreikuspenak txertatu nahi dira.

5. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko e) letrako testua aldatzeko emendakina.

“Kopuru txikitán” espresioa “gehienez ere urtean 2000 ale” espresioarekin ordeztea proposatzen da.

Zioak: Foru Legean Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aurreikuspenak txertatu nahi dira.

**2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****6. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Zioak: Europako 79/409 Zuzentarauaren urrapena egin dadila saihestu nahi da. Baita ere, aldaketa egiteko aurkezturiko Foru Lege Proiektuak aurrera jarraitzekotan Nafarroari zalantzarik gabe eginen zaizkion salaketak ekidin nahi dira.

7. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko testua kentzeko emendakina.

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua, irizpide tekniko eta zientifiko serioetan oinarrituz proposatua ez izateaz eta ezarritako nazioarteko jarraibideei ez egokitzeaz gain, jarrera populista eta konparaziozko batekin idatzia dago, eta horrek, ingurugiroaren ikuspegitik, teknikoki eta juridikoki justifikatua ez dagoen atzerapausoa ekartzen du, hiritarren interes orokorrarekin bat ez datorrena.

8. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua testua aldatzeko emendakina.

Honako testu hau proposatzen da:

2. Artikulua. 9. artikuluari beste idazati bat, 3a, gaineratzen zaio. Honelaxe:

“3. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak artikulua honetako 2. idazatiak aurreikusirikoaren arabera erabaki dituen baimenak jakinaraziko dizkio Ingurugiro Ministerioari eta Nafarroako Parlamentuari, ondoren Europako Erkidegoetako Batzordeari jakinaraz dakizkion”.

Zioak: Erabakitako baimenak biltzar honi jakinarazi beharra aurreikus dadin nahi da.

**3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****9. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Zioak: Foru Legea aldatzean lortu nahi den helburua, alegia, kontrapasako ehiza baimentzea, beharizan bat izanen balitz bezala agertzea bilatzen da “beste konponbide hoberik ez badago...”, jakinik Ingurugiro Komisarioak jadanik ohartarazi duela Espainiaren aurka joko duela kontrapasako ehiza baimentzen duen aldaketa argitaratzeko unean bertan.

Beraz, Nafarroari dagokionez, astungarri bat gehiagorekin jarduten ari da, honako honetan datzana: debekua ezartzen duen Legea (2/93, martxoaren 5koa) aldatzea bilatzen da, horrek kontrapasa de facto baimentzea ekartzen ez badu ere; administrazioak beranduago baimentzearen esku uzten da, eta pentsatzekoa da horren arrazoi bakarra Europako Ingurugiro Batzordearen parte-hartzea ekiditea dela, trikimailu horren bitartez.

10. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua testua kentzeko emendakina.

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua, irizpide tekniko eta zientifiko serioetan oinarrituz proposatua ez izateaz eta ezarritako nazioarteko jarraibideei ez egokitzeaz gain, jarrera populista eta konparaziozko batekin idatzia dago, eta horrek, ingurugiroaren ikuspegitik, teknikoki eta juridikoki justifikatua ez dagoen atzerapausoa ekartzen du, hiritarren interes orokorrarekin bat ez datorrena.

**AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****11. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Azken Xedapenetako Lehenari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Zioak: Aurreko emendakinekin koherentzia mantentzea.

12. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Azken Xedapenetako Lehenaren eta Bigarrenaren testua kentzeko emendakina.

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua, irizpide tekniko eta zientifiko serioetan

oinarrituz proposatua ez izateaz eta ezarritako nazioarteko jarraibideei ez egokitzeaz gain, jarrera populista eta konparaziozko batekin idatzia dago, eta horrek, ingurugiroaren ikuspegitik, teknikoki eta juridikoki justifikatua ez dagoen atzerapausoa ekartzen du, hiritarren interes orokorrarekin bat ez datorrena.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****13. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Zioak: Aurreko emendakinekin koherentzia mantenduz.

14. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko testua kentzeko emendakina.

Zioak: Nafarroako Gobernuak igorritako Lege Proiektua, irizpide tekniko eta zientifiko serioetan oinarrituz proposatua ez izateaz eta ezarritako nazioarteko jarraibideei ez egokitzeaz gain, jarrera populista eta konparaziozko batekin idatzia dago, eta horrek, ingurugiroaren ikuspegitik, teknikoki eta juridikoki justifikatua ez dagoen atzerapausoa ekartzen du, hiritarren interes orokorrarekin bat ez datorrena.

Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 12an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINAK

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, eta «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Ezker Abertzalea» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege

proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 12an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua “Nafarroako Enplegu Plan” bat egin dezan premiatzen duena

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK BAZTERTUA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: Mozioa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua “Nafarroako Enplegu Plan” bat egin dezan premiatzen duena. Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 1998ko martxoaren 27an egindako

bilkuran, aipatutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko martxoaren 17ko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 1998ko apirilaren 1ean egindako bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: “Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan”. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea Nafarroaren ordezkari izenda dezan Askotariko Batzorde Parekidean, Foru Komunitatearen eta RTVEren arteko Lankidetzaren Hitzarmen berariazkoa jarraitu, gainbegiratu, interpretatu eta exekutatzeko.

2. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari 2/1985 Foru Legeak esleitu zizkion eginkizunak betetzeko behar dituen giza-baliabide eta baliabide teknikoak eman dakizkion.

3. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari kokapen fisiko iraunkorra eman dakiola RTVEk Nafarroan duen Lurralde Zentroan, izan ere Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoa den horretan.

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan. Biltzarrak, 1998ko apirilaren 2an egindako Osoko Bilkuran, aipatutako mozioa baz-

tertu zuen. Mozio hori 1998ko martxoaren 25eko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gortek adierazten dute beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari buruzko azterlan bat egitea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Biltzarrak, 1998ko apirilaren 2an egindako Osoko Bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: «Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gortek adierazten dute beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari buruzko azterlan bat egitea». Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gortek adierazten dute beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari buruzko azterlan bat egitea

Nafarroako Gortek adierazten dute beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak 1998ko urriaren 31 baino lehen azterlan bat egitea Haur Hezkuntzako lehen zikloaren etorkizuneko garapenerako antolamenduzko beharrezkoen eta beharrezkoen ekonomiko eta sozialei buruz, bai eta horretarako behar diren giza-baliabideei buruz ere. Horrela, hezkuntza administrazioek modua izanen dute toki korporazioekin, bestelako administrazioekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin egin beharreko hitzarmenetako baldintzak zehazteko.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--